



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 30ean

105 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektua. Osoko zuzenketak (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2000. urtean Nafarroako lurraldearen antolamenduko jarraibideak presta ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzaten. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat presta dezan. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak bazter utzia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin parekatzeari. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001. urteko aurrekontuetan sar ditzan ikastetxe itunduetako langile irakasle ez diren lanariak. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—Mendillorriko kiroldegiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—“Ikastetxe berrien eraikuntza eta egokitzapen obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –672/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—“Ikastetxe berrien eraikuntza eta LOGSEra egokitzeko obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –529 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko urriaren 31ko 88 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ZUZENKETA**

#### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

66. artikuluko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa

“100eko 40ko kenkaria” jarri ordez “100eko 30eko kenkaria” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Proposatzen duguna zera da: Sozietateen gaineko zergari buruzko Legeak kuota osoari kenkaria aplikatzeko ezarrita zeukan ehuneko berari eustea, hain zuzen ere % 30 kopuru nahiko handia delako. Hala egin ezean, ehunekoa are handiagoa izateak oraindik ere gehiago igoko du zerga honek berekin dakartzan gastu fiskalen maila jada altua. Izan ere, zerga hau urtetik urtera eta erreforma fiskal batetik bestera ere bere bilketa ahalmena galtzen doa.

### **2. ZUZENKETA**

#### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

66. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“100eko 10eko kenkari bat” jarri ordez “100eko 5eko kenkari bat” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Aurreko lerrokadari aurkeztutako zuzenketa bezala, gure iritziz artikulua honetan jasotako gastuetarako proposatzen den emendiozko kenkaria, alegia % 10, oso handia da, eta enpresa-jardueren desfiskalizazioaren bidetik jotzen du.

### **3. ZUZENKETA**

#### **EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

72.3 artikulua aldatzeko zuzenketa

3. lerrokadako testutik “66 eta” artikulua aipamena kendu eta “(...) 63 eta 71. artikuluetan” jartzea (...).

Zioak: Sozietateen gaineko zergari buruzko Legearen egungo testuari eustea proposatzen dugu. Hartan ezartzen da kenkariaren muga ateratzen den kuota likidoaren % 35 izanen dela. Izan ere, gure ustez, aktibo finkoetan eginiko inbertsioei eta enplegua sortzeari buruzko salbuespenekin, muga hori kalkulatzeko ez baitira kontuan hartzen, kenkariaren tartea nahikoa zabala dela, eta ez dagoela zergan gehiago zabaldu; are gehiago kontuan hartzen bada kuota likidoaren % 35 horretara iristerako enpresek zer nolako kopurutako kenkariak aplikatu ahal izanen dituzten.

### **4. ZUZENKETA**

#### **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horretan, 200.000 pezetako kenkaria proposatzen da lau gizataldetako langile langabeak mugagabe kontratatzen diren aldiko.

Hala eta guztiz ere, guk uste dugu ezberdintasun handiak daudela lau gizatalde horietan artean lana aurkitzeko zailtasunei dagokienez. Hori dela eta, bi laguntza mota bereiztea proposatzen dugu:

Gure proposamenean, kenkaria 200.000 pezetatik 500.000 pezetatara igotzea proposatzen dugu, hain zuzen ere ondoko kolektiboetan:

a) 45 urtez gorako langile langabeak.

b) Emakume langabeak, emakume gutxien lan egiten duten lanbide edo jardueretan aritzekoak badira.

Bi gizatalde horiek dira langabeziak gehien zigortu dituen eta kontratu mugagabe bat lortzeko zailtasunik handienak dituztenak. Hori dela eta, uste dugu haien kontratazioa sustatu behar duela Administrazioak laguntza handiagoak emanaz.

Horrenbestez, Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektuaren 2. artikulua honelakoa izan dadin proposatzen dugu:

2. artikulua. Enplegua 2000. urtean sustatzea.

1. 2000. urtean hasten diren zerga aldietarako, subjektu pasiboek zilegi izanen dute Sozietateen gaineko zergaren kuota osoari 200.000 pezetako kenkaria egitea Enplegu Bulegoan inskribatutako edo honako gizatalde hauetako langile langabe bat mugagabe kontratatzen duen aldiko:

a) Enplegu bulegoan jarraian hamabi edo gehiago hilabetetan inskribaturik egon diren langabeak.

b) 30 urtez beherako eta honako ikastaroetako bat egindako gazte langabeak:

1go. Lanbidean abiatzekoa.

2gn. Eskola lantegiak eta lanbide etxeak.

3gn. Enplegu tailerrak.

4gn. Okupazio tailerrak.

2. 2000. urtean hasten diren zerga aldietarako, subjektu pasiboek zilegi izanen dute Sozietateen gaineko zergaren kuota osoari 500.000 pezetako kenkaria egitea Enplegu Bulegoan inskribatutako edo honako gizatalde hauetako langile langabe bat mugagabe kontratatzen duen aldiko:

a) Berrogeita bost urtez gorako langile langabeak.

b) Emakume langabeak, baldin 1998ko irailaren 16ko Ministerio Aginduak ezartzen dituen lanbide eta jardueretan aritzekoak badira (emakume gutxien kontratatzen diren lanbide eta jardueretan

emakumeen enplegu egonkorra sustatzeko Ministerio Agindua).

3. Ez da zilegi izanen 1. idatz-zatiko a) letran eta 2. idatz-zatiko a) eta b) letran aipatzen den kenkaria aplikatzea subjektu pasiboek kontratu mugagabe horientatik 55/1999 Legeko 28. artikulua enplegua sustatzeko programarako ezartzen dituen pizgarriak hartzen dituztenean baizik (Neurri fiskal, administratibo eta gizarte ordenakoei buruzko abenduaren 29ko 55/99 Legea).

Pizgarri horiek kontrolatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuari bidaliko dio aurreko lerrokadak aipatzen dituen kontratazio 2000. urtean egindakoen zerrenda, kontratatzaileak nor diren zehaztuz.

Artikulu honetako 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako kenkaria aplikatzeko, Sozietateen gaineko zergaren kasuko aitortenean frogatu beharko da Hezkuntza eta Kultura kontseilariak agintzen duen moduan, gizatalde horietako pertsonak kontratatu direla. Behar adina frogatuko ere da pertsona horiek aipatu 1. idatz-zatiko b) letra horretan aipatzen direnetako ikastaroren bat egina dutela.

4. Zilegi izanen da kenkari horiek bateratzea Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 71. artikulua ezartzen duenarekin, eta azken honentzat 72. artikuluan egiten diren xedapenak aplikatuko zaizkio.

## 5. ZUZENKETA

### EUSKAL HERRITARROK

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko 2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Ez da zilegi izanen kenkari horiek bateratzea Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 71. artikulua ezartzen duenarekin. Enpresak aukera egin beharko du, artikulu horretan ezarritako kenkaria ala artikulu honetan ezarritakoa, eta kenkari horri aipatu foru legeko 72. artikuluan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkio”.

Zioak: Gure ustez, ezberdinak dira planteatzen diren kenkariak; izan ere, egungo lege proiektukoak sektore jakin batzuei zuzentzen zaizkio (45 urtez gorako langile langabetuak, emakume langabeak, gazte langabeak...). Hala ere, guk uste dugu azaroaren 30eko 22/1997 Foru Legearen bitartez Sozietateen gaineko zergari buruzko 71. artikuluari ezarri zitzaion kenkaria handia denez \_kuotatik 700.000 pezeta, kontratu mugagabeaz plantillaren batez bestekoa

gehitu den pertsona-urte bakoitzeko\_ gehiegizkoa dela beste 200.000 pezetako sari bat jartzea. Enpresa izan beharko da bere interesen arabera kenkari baten alde eginen duena, eta oraindik ere langabeziak zigortutako gizatalde horietako langi-

leak hartuta ere plantilla handitu ez baina gizatalde horietako edo lan merkatuan bazterturik edo egoera txarrean dauden langileak kontratatzeke apustua egiten duten enpresentzat laguntza berriak ezarri behar dira.

## Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektua

### OSOKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko azaroaren 22ko 102 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 1. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketak.

Zioak: Lege proiektuko hainbat alderdi funtsezkoen edukiarekin ez gaude ados, hala nola PFE-Zean honako hauek duten tratamendua: familiarentzako eta norberarentzako gutxieneko kopuruek edo mutualitate, pentsio-plan edo sistema alternatiboetarako ekarpenek. Halaber, gure ustez lan-errenten egoera ez da hobetzen.

### 2. ZUZENKETA

#### JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa, eta proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakiola.

Zioak: Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektua Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 109. artikuluetako premiazko jardunbidera joz izapidatzea legez posible dela baldin badakigu ere, horren konplexutasun eta eragin ekonomiko eta soziala kontuan izanik eta azkenaldi honetan batbateko gertakaririk izan ez denez (Aurrekontuei buruzko Estatuko Legea izan ezik), logikoa litzateke gutxienez ere arau horren edukiaren zati handi bat lehenagotik aurkeztua egotea, eduki horren azterketa eta eztabaida patxadatsua ahalbidetzeko.

Arauaren beste hainbat alderdi puntual alde batera utzirik, proposatzen den arauak badu oinarritzko printzipio bat EA-EAJ/PNV taldeak onar ez dezakeena: hain zuzen ere, kenkariak zerga-oinarrira pasatzearena, aldaketa horrek ekartzen duen eragin negatiboa deuseztatuko lukeen eta progresibotasuna areagotuko lukeen aldaketa egin gabe.

Izan ere, gaur egun proposatzen den sistemaren arabera, kenkari handienak dituen gehien irabazten duena da, kontuan izan gabe huraxe dela haien beharrik txikiena duena. Eztabaida hau aspalditik jorratzen ari da, kenkari guztiak hartzen dituen bizi adinako gutxieneko kopuru bat ezartzeko, baina ez da ondoren horren alde egiten, oinarritzko errenta sozial baliokide bat ezarri.

Adibidez, 2.000.000 pezetako zerga-oinarria duen pertsona batek, bere lehen semea dela-eta, 20.000.000 pezetako diru-sarrerak dituen pertsona batek izanen lituzkeen kenkariaren balioaren erdiko kenkariak izan ditzake. Ikus daitekeenez, aldaketa horrek mesede egiten die, nabarmenki, errentarik altuenak dituztenei, eta, beraz, oso erregresiboa da.

Bestalde, zerga progresibo batean inflazioak duen eragin negatiboari aurre egiteko tarifaren

eguneratzea ez da egin; horregatik, zergako eskalan dauden oinarrien zenbatekoak ehuneko 2 edo 3 igo litezke. Eguneratze horrek eragin handia du banakako aitopenetan.

Zergaren tarifa deflaktatu beharra dago, oinarri likidagarriaren gehikuntza normal soil batek zerga-kuotaren gehikuntza berbera erakar dezan lortzeko.

Tarifa ez bada deflaktatzen, presio fiskalaren ezkutuko gehikuntza gertatzen da. Horren zergatia tarifaren progresibitatea bera da, zeinaren eraginez oinarriaren ehunekoaren gehikuntza batek kuotaren ehunekoaren gehikuntza are handiagoa sortarazten baitu.

Beranduagoko izapideetan alda litezkeen beste alderdi batzuk alde batera utziz, EA-EAJ/PNV taldearen aburuz justifikatua dago Gobernuari itzultzea eskatzen duen osoko zuzenketa.

### 3. ZUZENKETA

#### EUSKAL HERRITARROK

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko osoko zuzenketa aurkeztu dio Zenbait zerga eta tributu arloko beste neurri batzuk hein batean aldatzeko Foru Lege proiektuari eta Nafarroako Gobernuari itzul dakiola eskatu du.

Zioak: Aurreko aldaketen bideari jarraikiz, zuzeneko zergen eta, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezaugarri den progresibotasun printzipioaren aplikazioan atzerapauso bat gehiago ematea dakarte lege proiektuan ezartzen diren neurriek. Lege proiektuak ahortzi egiten du progresibotasuna ahalmen ekonomikoaren kontzeptuaren ondorioztat jo behar dela. Tributu sistemak progresibotasun printzipioari jarraikiz eragin behar die ondasun eta eskubide gehiago izateko ahalmenaren titularrei.

Neurri horien bidez, UPNko Gobernuak berriro ere erakutsi du zer zerga politika defendatzen duen: politika atzerakoia, eskuinekoek egin ohi dutena, errenta altuenen titularrek etekin gehien ateratzeko politika, alegia.

Lehenago egindako betse aldaketa batzuetan, karga-tasen eskala nabarmen aldatzea izan zen eskuinekoen politika horren giltzarria, errenta altuenen gaineko zerga presioa nabarmen jaitsi baitzen, tasa marginala jaitsiz. Aldaketa hura justifikatzeko esan zen horri esker beste errentei ere egiten zitzaizela mesede eta, hortaz, herritar guztientzako zela ona aldaketa hura.

Orain ere argumentu bera erabiltzen da, oraingoan "gutxieneko pertsonal eta familiarra" izenpean, PFEZri buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55. artikuluan araututako zerga oinarriaren kenkari gisa egitean. "Gehien daukanak gehien ordain beza" printzipioa "gehien daukanak onura gehien atera beza" bihurtu nahi da.

Lege proiektua ikusita, hauxe esan dezakegu: aldatu egiten ari da zenbait kenkariren zentzua baldin eta zerga kuotaren gainean egin beharrean zerga oinarriaren gainean egiten badira; izan ere, ezkutatu egiten da zerga oinarritik desagertzean subjektu pasiboaren errentaren puska bati dagozkion tributuak ez direla ordainduko.

Halaxe ulertu behar dira PFEZri buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55. artikuluko 5, 6 eta 7. idatz-zati berriak, artikuluko bereko 3 eta 4. idatz-zatiei idazketa berria eta 75. artikulurako proposatu den 6. araua. Zerga oinarriaren tratamendu horren ondorioz, ahalmen ekonomiko bera izanagatik ez da tratamendu bera aplikatzen, eta kaltetua beti da indar ekonomiko txikiena duena. Azken batean, helburua ez da Ogasunak diru gehiago biltzea zuzeneko zergen bidez tributu sistema benetan progresiboa izan dadin, baizik eta zeharkako zergen gainean uztea berriz ere diru-bilketaren pisua –regresiboa definituz–, ez baitu subjektu pasiboaren ahalmena diskriminatzen. Ezin dugu ahaztu ezen, azken aldi honetan, erreforma honekin bat etorritik beste aldaketa batzuk ere onetsi direla, Sozietateen gaineko Zerga dela-eta esaterako, eta aldaketa horiek mesede egingen diela Gobernuari itzul dakion eskatzen den lege proiektu honek sarituko dituen zergadun asko eta asko. Zuzeneko zergen diru-bilketa berriro ere murriztuko da (20.000 bat milioi azken lau urteotan Gobernuaren esanetan), eta horri esker zerga gutxiago ordainduko dute (beraien errentekiko eta pezeta errealetan) errenta eta eskubide gehien dituztenek.



---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2000ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean eskola jantokiek bete behar dituzten baldintzak arautuko dituen arau-proposamen bat egin dezan, ondoko irizpideei jarraituz:

1. Administrazioak, eskola-kontseiluen laguntzarekin, antolatu eta kudeatuko ditu ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako derrigorrezko mailetako eskola jantoki guztiak.

2. Jantokiaren berezko jarduketarako planifikaturik hezkuntza helburu batzuk ezarriko dira; zerkusia izanen dute elikaduran, higieanean eta nutrizioan ohitura osasungarriak sortzearekin eta gaitasun sozialetan trebatzearekin.

3. Otorduen aurreko eta geroko aisialdia adinaren eta ikasleen ezaugarrien arabera antolatuko da. Jantokiaren eta asialdiaren erantzuleek behar den prestakuntza izanen dute eta haien proposamenak Eskola Kontseiluak balioetsi eta onetsiko ditu.

4. Horretatik gutzitik ondorioztatzen den erantzukizun zibila Nafarroako Gobernuak eta enpresa hornitzaileek partekatuko dute.

5. Berariaz baloratuko da enpresa hornitzaileen kontratazioan hezkuntza proposamen ahal den eta osatuena eskaintzen dutenak.

6. Zaintzaile-bazkaltiar ratioak egokitu egingen dira, eta beti izanen dira irakasle-gela ratioak baino txikiagoak.

7. Sortu berritako ikastetxe guztiak jantokirako lekua izanen dute; gainerako ikastetxeetan eskola-jantokirako beste ezertarako erabiltzen ez den leku bat egoteko ahaleginak egingen dira.

8. Administrazioak eskola jantokietako prezioak ezarriko ditu, eta behar diren fondoak jarriko dira behar duten familiei bekak edo laguntzak eman ahal izateko.



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2000. urtean Nafarroako lurraldearen antolamenduko jarraibideak presta ditzan**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2000ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2000. urtean Nafarroako lurraldearen antolamenduko jarraibideak presta ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2000. urtean Nafarroako lurraldearen antolamenduko jarraibideak presta ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako lurraldearen antolamenduko jarraibideak, 2000. urtekoak, presta ditzan, legegintzaldi honetan onets ditzagun, ezinbesteko elementua baitira Nafarroa harmoniotsua goa, justuagoa eta orekatuagoa izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langileak berrantola ditzan Lurraldearen Antolamenduko Departamentuari atxikitako funtzionarioen kopurua handitzeko, modua izan dezan bai hasita dauden eskualdeetako hirigintza arauetako lanak bai lurraldearen antolamenduko jarraibideak prestatzeko lanak gainbegiratzeko.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzaten**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2000ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzaten".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzaten**

1.- Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat presta dezan**

### *EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSIA*

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak, 2000ko azaroaren 22an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat presta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat presta dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean

presta dezan eta Biltzar honetan aurkez dezan Nafarroako Gobernuaren menpe egon daitezkeen enpresa publikoetan, erakunde autonomoetan eta bestelako enteetan aplikatu beharreko arauteria. Halaber, kudeaketaren alderdi ezberdinak homogeneizatu beharko dira, hala nola administrazio kontseiluen osaketa, enkarguak egiteko modua eta aplikatzekoak diren prezioak. Entiteen Erregistro Orokor bat ere aurreikusi beharko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa publikoek, erakunde autonomoek eta enteek Administrazioarekin eduki behar duten harremanak arau ditzan, batez ere entitate bakoitzak egin behar duen jarduera motari dagokionez, gai horretan nahasbiderik dagoenean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa publikoetan ordezkariak duten sindikatuarekin hitzartutako langile horiek hitzarmen autonomiko bat izan dezan, dauzkaten lan baldintzak hobetzeko eta 35 orduko lanaldia ezartzeko, besteak beste.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak,

2000ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko irailaren 18ko 72 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin parekatzeari**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko azaroaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin parekatzeari".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin parekatzeari**

1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen die hezkuntza itunduko langileek eginiko

eskariei, itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko irakasleek dauzkatenekin homologatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itunpeko irakaskuntzako ordezkari diren sindikatuekin behar den akordioa erdietsi dezan, ondoko alderdiak bilduz, betiere:

a) Ikastetxe itunduetako irakasleen eta irakasle ez diren langileen lansarietan homologazioa lortzea, foru administrazioko irakasleen eta irakasle ez direnen lansarien % 95era iristeko, kasuan kasuko lansarien maila ezberdinetan.

b) Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan 25 eskola orduko presentzia iristerainoko ordutegien homologazioa, irakaslea/ikastaldea ratioak handituz eta jolasorduak sartuz; 18 klase-ordu DBHko, batxilergoko eta lanbide modulueta bigarren zikloko mailetan.

c) Hitzarmen autonomiko bat egitea Foru Komunitatearen esparruan ari diren ikastetxe itunduen sareko langileentzat, Nafarroako hezkuntzaren errealitatea aintzat hartuz.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001. urteko aurrekontuetan sar ditzan ikastetxe itunduetako langile irakasle ez direnen lansariak**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001. urteko aurrekontuetan sar ditzan ikastetxe itunduetako langile irakasle ez direnen lansariak".

Biltzarrak, 2000ko azaroaren 23an egindako

Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko irailaren 25eko 74 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan".

Biltzarrak, 2000ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko azaroaren 23ko 103 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruzko galdera****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Antonio Andiñon jaunak DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Antonio Andiñon Gastón jaunak galdera egin du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen sarea berrantolatzeko arauak ematen dituen martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuaren 6. artikulua (apirilaren 7ko NAO) baimena eman zien DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko VI. eranskinean zehazten diren ondoko ikastetxe hauei: Agoizko "San Miguel", Arantza, Beteluko "Araxes", Garraldako "Virgen de Orreaga", Goizuetako "Andrés Narbarte Xalto", Larraintzarko "Obispo Irurita", Lekunberriko "Larraun", Los Arcosko "Santa María", Otsagabia, Erriberriko "Príncipe de Viana", Gares, Erronkariko "Julián Gayarre", Urdazubi-Zugarramurdi, Vianako "Ricardo Campano" eta Zudairiko "Las Amescoas".

Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxeen sarea berrantolatzeko arauak ematen dituen martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretua aldatzen duen martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuaren artikulua bakarrak (apirilaren 8ko NAO) aipatutako VI. eranskina aldatu zuen. Ondorioz, beste ikastetxe batzuk sartu zituen eta sartutako beste batzuk kendu:

a) Sartu zituen: Faltzesko "D<sup>a</sup> Álvora Álvarez" ikastetxe publikoa, Funesko "Elias Terés" ikastetxe publikoa eta Luzaideko ikastetxe publikoa.

b) Eranskinetik kendu ziren: Agoizko "San Miguel" ikastetxe publikoa, Garraldako "Virgen de Orreaga" ikastetxe publikoa, Larraintzarko "Obispo Irurita" ikastetxe publikoa, Otsagabiako ikastetxe publikoa, Erronkariko "Julián Gayarre" ikastetxe publikoa eta Vianako "Ricardo Campano" ikastetxe publikoa.

Martxoaren 30eko 109/1998 Foru Dekretuaren 1. artikulua martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuan –martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeen sarea berrantolatzeari buruzkoa, aldatzen duena—ezarritako ikastetxeen zerrenda eguneratu zuen eta berriz aldatu zuen aipatutako VI. eranskina. Bertatik kendu zuen Garesko ikastetxe publikoa eta Funesko "Elias Terés" ikastetxe publikoa, oker sartua baitzegoen, eta Irurtzango "Atakondoa" ikastetxe publikoa sartu zuen, oker baten ondorioz ez baitzegoen sartua.

Aurreko guztiaren ondorioz, ondoko hauek dira egun DBHko lehen zikloa behin-behinekoz irakasten duten eta foru dekretu bidez hartarako baimena duten zentroak 1999/2000 ikasturtean: Arantza, Beteluko "Araxes", Faltzesko "D<sup>a</sup> Álvora Álvarez", Goizuetako "Andrés Narbarte Xalto", Irurtzango "Atakondoa", Lekunberriko "Larraun", Los Arcosko "Santa María", Luzaide, Erriberriko "Príncipe de Viana", Urdazubi-Zugarramurdi eta Zudairiko "Las Amescoas".

Eskola mapa deiturikoa egiterakoan eta derrigorrezko bigarren hezkuntza ezartzerakoan, DBHko lehen zikloa irakasteko behin-behineko baimena eman zitzaizen kontzentrazio ikastetxeei, eskolako garraioaren ibilbide luzeak saihesteko, gutxienez hamalau urte arte, adin horretan ukitutako herrietako ikasleek BBB ikasteko joan-etorri luzeak egin behar baitzituzten.

Ez dago eta ez da egon legezko baimenik Castejóngo "Dos de Mayo" ikastetxe publikoak DBHko bigarren zikloa irakas dezan. Egon dena izan da Tuterako "Benjamín de Tudela" BHIren hedapen bat, obra kontuak zirela eta. Horren froga da Castejóngo ikastetxe publikoan DBHko ikasleak egoteak eragin dituen mantenimendu gastuak, denak ordaindu dituela hezkuntza administrazioak eta ez udalak. Izan ere, udalak ordainduko zituen, baldin eta herri horretako haur eta

lehen hezkuntzako ikastetxeak baimena izanen balu DBHko lehenengo zikloa irakasteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña

---

## **Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du

Cortesko gazteluari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1) Nafarroako Gobernua oraindik ere eskatzen ari zaie Gobernu Zentraleko arduradunei paradore nazionala sare nazionalean sar dezaten eta, beraz, sare horrek zaharberritu eta gaitu dezan.

2) Ez dago epe zehatzik, paradore nazionalen arduradunek ez baitute ontzat eman.

3) Turismo Departamentuan ez da aurreikusi paradoreaz besteko erabilerarik eta, beraz, ez du aurrekontuko inolako esleipenik higiezinaren inguruan aipatutako obra horiek egiteko.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

## Mendillorriko kiroldegiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Mendillorriko kiroldegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Mendillorriko kiroldegiari inguruko zenbait gairi buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak duela gutxi onartu eta argitaratu duen baldintzen pleguan Mendillorriko trinketaren eraikuntza lehenetsi du kiroldegiarenarekiko eta, beraz, "Mendillorri bereiztea eta Iruñean barneratzea arautzen duen hitzarmena" ez du bete. Zergatik?

Aipatzen den baldintzen plegua ez da inola ere obren esleipenari dagokiona; beraz, ez da ezartzen lehentasunik horien exekuzioan.

Proiektua idazteko baldintzen pleguan, arkitekto lizitatzailerei obrak egiterakoan izan daitezkeen aukera guztien berri ematearen xedea da izan daitezkeen ustekabeei konponbidea aurreikustea. Ustekabe horiek ez dute zertan bakarrik ekonomikoak izan beharrik; izan ere, izan daiteke exekuzio problemarik, denborarekin lotutakorik eta abar. Hori guztia arazoak saihesteko egin da, kontuan izanik Nafarroako eraikuntzaren benetako egoera;

izan ere, gogoratu behar baitira, zehazki, Parlamentuko obrak zeinak bai Udalak bai Nafarroako Gobernuak Munduko Pilota Txapelketa ospatzeko hartua zuten konpromisoari kalte egin baitzieten.

2.- Elkarrizketatu al da Iruñeko Udalarekin kiroldegia eraikitzeko atzerapen berri honen zergatiak azaltzeko?

Memento oro izan dira elkarrizketak Iruñeko Udalarekin, bai alkatearekin bai zinegotzi delegatu Ezpeleta jaunarekin. Halaber, Udalari aukera eman zitzaion berak obrak egiteko; hala, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak kapital transferentziak eginen zituen gastuei aurre egiteko, eta diru laguntzak jaso ahalko zituen Kirolen Kontseilu Nagusitik Munduko Txapelketa zela eta. Aitzitik, obrak Nafarroako Gobernuak egiten badi-tu ez du diru laguntzarik jasotzeko aukerarik izanen.

3.- 2001. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak Nafarroako Gobernuak egin eta, ondoren, Nafarroako Parlamentura igortzen dituela kontuan hartuz, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak kontusail bat esleitzea 2001. urtean Mendillorriko kiroldegia egiteko?

Nafarroako Gobernuak aurreikusia du aurrekontuko kontusail bat esleitzea kiroldegia eta trinketaren obrak exekutatzeko.

4.- Erantzuna ezezkoa bada, noizko uste du Nafarroako Gobernuak egin ahalko direla kiroldegi horretako obrak?

Aurreko erantzuna baiezkoa da.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko irailaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## Jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento da Navarra” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak 2000ko ekainaren 1ean galdera egin zuen jateko ohituren nahasketari –anorexia eta bulimia– buruz. Hona hemen, Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat gaixo dago diagnostikatuta, edo zenbatek dute jateko ohituren nahasketa, anorexia eta bulimia hain zuzen ere?

Gaixo horietatik, zenbat dira gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak? Zer adin dute?

Adimen Osasuneko zentroek, 1999an, guztira 368 pertsona atenditu dituzte (345, 1998an). Horietatik 151 anorexia kasuak izan dira (161, 1998an), 126 bulimia koadroak (115, 1998an) eta 91 jateko ohituren nahasketa mistoak, berariazkoak ez direnak, edo bestelakoak (69, 1998an). Garrantzitsua da jakitea azken talde horretan sartzen direla bai anorexia-bulimiako kuadro mistoak bai anorexia edo bulimiaren ezaugarri guztiak betetzen ez dituztenak eta subklinikoak direnak, bai eta batez ere haur txikiengan gertatzen diren bestelako nahasketak –janariaren kontrako jarreak...-. Beharrezkoa da, beraz, “Bestelakoak” kapituluko diagnostiko-datuak interpretatzerakoan zuhur jokatzeara.

Sexuen araberako banaketari dagokionez, 334 (kasu guztien % 90,7) emakumeak dira (312, 1998an, hau da, % 90,4).

Gaixoaren perfila nerabe edo emakume gaztea da, nahiz eta gizonezkoen kasuak ere badi- ren. Adin txikiengan hastapeneko kasuak antzema- ten ari dira –50 kasu, 16 urte baino gazteagoetan, 1999an– nahiz eta esan behar den gehienak beste nahasketen kapituluan sartu

direla (1999an 16 urtetik beherako adin txiki-koen antzemandako kasuetatik 18k betetzen dituzte berez anorexia edo bulimiaren ezaugarriak direnak). Bestalde, hogeita hamar urtetik gorako emakumeen kasuak jarraitzen dute, urtetan diagnostikatu gabe mantendu direnak edo barne medikuntzako, dietetikako, nutrizioko eta abarretako zerbitzuetatik tratamendu ez-osoak jasotzen direnak eta soilik duela gutxi jo dutenak Adimen Osasuneko Sarera, bertan oinarrituko arazoa, psikologikoa eta portaerari buruzkoa bera, tratatu baitaiteke.

Azken urteetan iraunkor samarrak izan dira zifra horiek. 1999 eta 1998ko datu horietaz gain, 1997an Adimen Osasuneko Zentroetan 364 pertsona atenditu ziren –% 91,2 emakumeak– eta 1996an, 327 –% 91,4 emakumeak.

I. taulan ematen da 1999an tratatutako jateko ohituren nahasketen zerrenda; Nafarroako Adimen Osasuneko 8 sektoretan banatuta daude, sexuaren arabera eta adinari erreparatuz –bi adin bloke: 16 urtetik gorakoak eta hortik beherakoak, haur-gazteen programari edo adinekoenari atxikita egotearen arabera.

Adina zehatzago ematen da II. taulan. Bertan, gaixoak 5 urteko tramoka sailkatzen dira, 15 urtetatik 40 urtetara arte. Beharrezkoa da azpimarratzea bestelakoak kapituluan sartutako datuen heterogeneotasuna bai eta bertan sartzen direla ere haur txikiengan gertatzen diren kontrako jokabideak, horiek ez baitira galdetutako jateko ohituren nahasketa motak berez. Anorexia eta bulimiaren hastapen adinera egindako beste hurbilpen bat eskaintzen digute “Natividad Zubieta” Haur eta gazteentzako Eguneko Ospitaleko datuek. Unitate horretan 1999an tratatutako kasuetatik, batek hamabi urte zituen –anorexia zuen neskatila–, gainerakoak, aldiz, 14 urtetatik gorakoak ziren.

2.- Arazo hori dela-eta, ba al du Osasun Departamentuak jarduera-protokolorik eta berrazko programarik? hala baldin bada, nola artatzen dira gaixo horiek? koordinatuta al daude espezialitateak horiei tratamendua emateko?

Anorexia, bulimia eta pisuari buruzko gehiegizko kezkarrekin edo gorputzaren irudi okerra haute- matearekin lotutako jateko ohituren beste nahas- mendu batzuei osasun laguntza ematen zaie Nafarroako Osasun Zerbitzuko hainbat zentrotan, gehienak, Adimen Osasuneko Sarekoak izaki.



Nafarroako Adimen Osasuneko zortzi zentroek jateko ohituren nahasketetarako tratamendua eskaintzen dute. Haren izaera diziplina anitzekoa da –psikiatria, psikologia, klinika, gizarte lana...– eta garrantzi handia dute prozedura psikoterapi-koek, indibidualek, taldekoek, bai eta familiek esku hartzen dutenekoek ere.

Adimen Osasuneko zentroek lan horretan beste zentro espezializatuago batzuen laguntza jasotzen dute, egoeraren arabera:

- “Natividad Zubieta” Haur eta gazteentzako Eguneko Ospitalea haurtzaroko eta nerabezaroa baino lehenagoko adinetako agertze goiztiarreko kasuez arduratzen da. 1999an, 18 gaixo atenditu ditu; horietatik seik anorexiaren ezaugarriak betetzen zituzten, batek bulimiarenak eta gainerakoak jateko ohituraren nahasketen bestelako diagnostikoak ziren.

- Adimen Osasuneko Eguneko ospitaleek tratamendu intentsiboa eskaintzen dute, ospitalizazio partzialeko araubidean, adimen osasuneko zentroetako fakultatiboan iritziz halakorik behar duten kasuetarako. Iruñean, sei gaixo atenditu dira eta bi, Tuteran; horietatik hiruk anorexiaren ezaugarriak betetzen zituzten, beste hiruk bulimiarenak eta bik beste diagnostiko batzuenak.

- Azkenik, Ospitale Sistemari, Ospitale Nagusi-ko Ospitalizazio Psikiatrikoko Unitateetan, ospitaleratzea gertatzen da gorputzaren nariaduran eragin handia dagoenean, pisua galtzean. 1999an, unitateek 14 kasu jaso dituzte guztira; 9 Nafarroako Ospitalean (6 anorexia, bulimia 1 eta 2 kasu bestelakoak kapitulukoak) eta 5 Bideko Ama Birjina Ospitaleko unitatean (3 anorexia eta 2 bulimia).

Gaixo horiek guztiak, aldakorra den aldi batez tratatu ondoren –laburragoa Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitateetan, luzeagoa eguneko ospitaleetan–, adimen osasuneko zentroetan sartzen dira, han ematen baitaie oinarrizko tratamendua.

Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste zentro batzuekin dagoen lankidetzaren handia da, batez ere oinarrizko osasun laguntzako zentroekin; azken hauek arazoa antzemateko lanak eta gaixoari eta haren familiari aholku ematekoak betetzen dituzte. Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko dietetika eta nutrizioko zerbitzuek, berriz, parte hartzen dute, adimen osasuneko zentroek eskatuta, beren diziplinakoak diren gaietan.

Dietetika eta nutrizioko espezialisten esku hartzea erabakigarria da, bai beraien espezialitatekoak diren gaien tratamenduan bai arazoa adimen

osasuneko nahasketa gisa birdefinitzerakoan, hala kontzeptuaren ikuspuntutik nola osasun alorretik ere. Izan ere, osasun alorrari dagokionez, bertan ematen den tratamendua beti adimen osasuneko zerbitzuek berezkoa dutena izaten saiatzen da –ospitaleratzea ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan, tratamendua adimen osasuneko zentroetan... edozein delarik ere nutrizioaren garrantzia– eta dietetika eta nutrizioko espezialistek tratamendu osoan zehar esku hartzen dute aholkulari gisa.

Laburtuz, tratamendua diziplina anitzekoa da eta Adimen Osasuneko Sareko estamentu ezberdinak (psikologoa, psikiatra...) eta zentroak (adimen osasuneko zentroak, eguneko ospitaleak, ospitaleratze psikiatrikoko unitateak) biltzen ditu jarduketara protokoloen bidez (kasuaren arduraduna zehaztea, interkontsulta...) bai eta deribazioko protokoloen bidez ere (larritasunaren eta tratamendu intentsibo baten behararen arabera, zainketekin jarraitzea...); oinarrian, beste edozein adimen nahasketa larritan aplikatzen diren antzekoak dira. Jateko ohituren nahasketak laguntzeko protokoloen berezitasuna da zainketen jarraikortasuna eta dietetika eta nutrizioko unitateekiko koordinazio estua. Izan ere, adibidez, ospitaleratze erabakiak adimen osasuneko zentroetako eta dietetika eta nutrizioko fakultatiboak ados jarrita hartzen dira. III. taulan, argigarri gisa, Nafarroako Ospitaleko Dietetika eta Nutrizio Unitateko anorexia/bulimia datuak eskaintzen dira.

3.- Aurreikusitako al du Osasun Departamentuak aurrea hartzeko programak edo planak egitea eta arazoari aurre egiteko neurri bereziak hartzea? hala baldin bada, zein dira? nola egingen dira?

Osasun Departamentuak datozen urteetan jateko ohituren nahasketa gehiago izanen direla –kasuen kopurua guztira– aurreikusten du, ez hainbeste epidemia arrazoiak direla-eta, baizik eta hautemate goiztiarrak gehituko direlako sentsibilizazio kanpainak eta gizartearen izua dela eta. Ez da baztertzeko ere positibo faltsuak egon ahal direla bai eta izateko arrazoirik ez duten beldurrak gurasoen aldetik.

Gero eta ugariagoak dira kasu mistoak, lotura zailekoak, edo subklinikoak, alegia, diagnostikora eskatzen diren baldintza kliniko guztiak betetzen ez dituztenak –erregistroetan “bestelako nahasketak” gisa azaltzen dira–. Horrek badu bere alde ona –hautemate goiztiarra eta pronostiko ona– bai eta txarra ere –laguntza negatiboa, gehiegizko kezka eta gurasoen kontrol handiegia, gazteen indibidualizazio eta emantzipazio prozesuan oztopoak sortzea eta ondorioz bestela-

ko nahasketa psikologikoak eta jokaeraren inguru-koak agertzeko arriskua...

Igoera hori aurreikusirik, erabaki da jateko ohituren nahasketak adimen osasuneko zentroetako Adimen nahasketa larrien Programan sartzea, ez arrazoi epidemiologikoengatik –alderatu bitez jateko ohituren nahasketen 345 kasuak adimen osasuneko zentroetako 1998ko 17.000 erabiltzaileekin– baizik eta kasu batzuen izaera lazgarriagatik eta aipatu dugun gizarteko izaeragatik. Programa horretan sartzeko kasu horiei lehentasuna emateko ahalegina egitea dakar, bai eta laguntza indibidualizatuan eta berariazko programak diseinatzean ere. Halaber, Adimen Osasuneko Informazio Sistema berariazko jarraipena egiten hasi da eta aparteko kapituluan, 1999tik aitzinako datuak, anorexia, bulimia eta jateko ohituren bestelako nahasketenak, biltzen ditu.

Osasunaren prebentzio eta sustapena:

Osasuneko prebentzio eta sustapen programen diseinua Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egiten du, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalekin batera. Anorexia eta bulimien arloan, zenbait urtetatik hona bi jardueraren inguruan egiten da lan: bata berariazkoa ez dena eta bestea berariazkoa dena.

I. Berariazkoak ez diren programak:

Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak berariazkoa ez den prebentzioko eta osasun sustapeneko programak egiten ditu, ikasle aurrenerabeei eta haren senitartekoei zuzenduak. Horretarako lankidetzan aritzen da Hezkuntza Departamentuarekin, gurasoen elkarteekin, Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentroekin eta emakumeen laguntzarako zentroekin eta oinarriko gizarte zerbitzuekin. Programa horiek aspalditik barneratzen dute gorputzari buruzko kezken eta nutrizio ohituren inguruko materiala.

Bi programa dira. Lehenengoaren –“Aurrenerabeen eta nerabeen osasun eta garapen pertsonala”– helburua da norberaren zainketa hobea eta gaitasun pertsonal eta sozial handiagoa barnertzen dituzten bizimoduak garatzea. Badu laguntza-materialik – “Nerabeekin lan egiteko osasun eta garapen pertsonalaren gida”, Osasun Departamentua. 1995– gelan garatu ahal izateko. Material hori DBHko irakasleei banatu zaie, bai eta erakunde, organizazio eta arlo ezberdinetako (udala, aisialdia eta oporrak eta abar) hezitzaileei ere. Gazteleraz 3000 ale banatu dira eta euskaraz, 700.

Bigarrena Gurasoen Hezkuntzako programa bat da gurasoen eskolak deiturikoetan garatzeko.

“Gurasoen Hezkuntzarako Gida” bat du –Osasun Departamentua. 1995– eta bertan informazio mota asko biltzen du, artean, gorputzarekiko gehiegizko kezka erakusten duten nerabeen alegiazko kasuak. Gida hori banatu zaie –1.400 ale gazteleraz– osasun zentroeiei, gurasoen elkartei, oinarriko gizarte zerbitzuei, emakumeen laguntzarako zentroeiei, ikastetxeetako orientazio departamentuei, adimen osasuneko zentroeiei eta abar, horien inguruan antolatzen baitira gurasoen eskolak.

Osasun Publikoaren Institutuak laguntza teknikoa eta prestakuntza ematen ditu aipatutako zentroetako profesionalen programa hori gara dezaten, horiek baitira ekintza horiek beren jardueran programetan sartu eta aipatutako materiala erabiltzen dutenak.

Momentu honetan –2000ko ekaina– Osasun Publikoaren Institutua bizimodu osasungarriak sustatzeko programa berri bat prestatzen ari da eskoletarako eta bertan “Elikadura” izeneko kapitulu bat jasotzen du. Laguntza-materiala prestatua dago jadanik –liburuxka eta karta-jokoa– eta horiek banatzeko modua eta hurrengo 2000-2001 ikasturtean lehenetsiko diren bizimodu osasungarriko gaiak diseinatzea –Hezkuntza Departamentuarekin batera– falta da.

II.- Berariazko prebentzio programa:

1998 eta 1999an, Nafarroan, berariazko prebentzio programa, “Jateko ohituren nahasketen sentsibilizazio kanpaina eta prebentzioa” izenekoak, garatu da.

Programa hori Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Emakumearen Institutuaren artean 1998ko martxoaren 27an sinatutako akordioaren ondorioa da, haren bidez ezarri baitzen horien eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren arteko lankidetzak, jateko ohituren nahasketei aurrea hartzeko plangintza egiteko eta jarduerak garatzeko. Programa hori garatzeko departamentuen arteko talde tekniko bat eta akordioaren jarraipenerako batzorde bat eratzeaz gain, beste erakunde batzuen aholkuak jaso dira –Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, kasu– eta hezkuntza munduan sartzeko funtsezkoak izan diren Hezkuntza Departamentuaren menpeko Irakasleentzako Laguntza Zentroen (CAP) laguntza ere izan da.

Kanpaina 2 fasetan egin da; lehena, 1998ko martxoa eta 1999ko martxoa bitartean eta, bigarrena, 1999ko martxoa eta 1999ko abendua bitartean. Kanpaina hainbat jardueraren bidez egin da eta horiek helburu generiko hauek izan dituzte:

a) DBHko ikasleei eta haien familiei jateko ohituren nahasketei buruzko informazioa ematea: 27.500 informazio-triptiko, gazteleraz eta euskaraz; "Anorexia eta Bulimia" izeneko osasun liburuxkak berrargitaratu eta banatzea; "La Boda de Muriel" filmearen emanaldia, nerabe eta osasun adimeneko profesionalen arteko solasaldi-mahai inguruarekin –horretarako, emanaldiari eta solasaldiari buruzko eskutitzak bidali dira Nafarroako ikastetxe eta institutu guztietara–; irakasleak prestatzea geletan solasaldi eta elkarrizketa jarduerak burutzeko ikastetxeetako DBHko irakasleekin.

b) Nafarroako biztanle nerabeei informatzea jateko ohituren nahasketei buruz: pelikula emanaldia, solasaldi-mahai inguruak eta liburuxkak banatzea Iruñeko gazteekin, bai eta Zarrakaztelu, Tuteran, Lizarra, Tafalla, Leitza, Erronkari, Elizondo, Bera, Zangoza, Azkoi-en-Martzilla, Corella, Cienfuegos, Lodosa, San Adrian eta Mendabiako gazteekin ere.

c) Nafarroako komunikabideak sentsibilizatzea: mezu informatiboak, prentsaurrekoak egitea eta irratia eta telebistan osasun programetan parte hartzea.

d) Osasun eta gizarte baliabideak koordinatzea: lankidetzak hitzarmenak eta diziplinarteko lana Nafarroako Administrazio Publikoko Institutuko, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko eta Osasuneko –batez ere, adimen osasuneko– profesionalen artean.

e) Senitartekoen elkarten sorrera bultzatzea: 1998ko urrian, ABAN –Anorexia eta Bulimiaren Nafarroako Elkarte– elkartearen sorrerarekin lortutako helburua da; ondoren, harekin koordinatu eta lankidetzan aritzea.

f) Generoaren ikuspuntua sartzeko: komunikabideei eta hezkuntzako profesionali nahasketak horiek gehienbat emakumeengan gertatzea eragiten duten gizarte eta kultur faktoreen nozioa bai eta hezkuntzakoena ere helarazi eta haien bidez zabaltzea.

Interneten programaren kontzeptu oinarriak buruzko informazioa dago eskuragai, bai eta jateko ohituren nahasketen inguruko aurkezpen eta hastapeneko materiala ere. Hona web orrialdearen helbidea: <http://www.cfnavarra.es/inam/trasornos.htm>

Programak ebaluatu ahal diren zenbait adierazle izan ditu –gazteen parte hartzea, gurasoena, hezitzaileena, komunikabideetan izan duen eragina, eztabaida taldeak–. Oro har, aurreikusitako helburuak lortu dira eta espero ez ziren ondorioak antzeman, artean, familiek hitzaldi eta informazio ugari eskatzea, irakasleen partehartzea, eta komunikabideen interesa.

Egun, kanpaina ebaluatzen ari dira eta bertan, aipatutako datuez gain, kanpaina parte hartu zuten gazteek eta dozena bat ikastetxek erantzundako 400 galdeketa baino gehiagoren analisia ere sartzeko da.

## 1. TAULA

### ANOREXIA

>16 urte < 16 urte Guztira

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
IA	10		10				10		10
IB	22	1	23	2		2	24	1	25
IC	22	2	24	3	1	4	25	3	28
IIA	11	1	12		1	1	11	2	13
IIB	46	6	52	6		6	52	6	58
III	3		3				3		3
IV	2		2				12		12
V	12		12				12		12
GUZTIRA	128	10	138	11	2	13	139	12	151

**BULIMIA**

&gt;16 urte &lt; 16 urte Guztira

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
IA	10		10				10		10
IB	20		20	1	1	2	21	1	22
IC	18		18	1		1	19		19
IIA	13		13	2		2	15		15
IIB	37	5	42				37	5	42
III	3		3				3		3
IV	3		3				3		3
V	12		12				12		12
<b>GUZTIRA</b>	<b>116</b>	<b>5</b>	<b>121</b>	<b>4</b>	<b>1</b>	<b>5</b>	<b>120</b>	<b>6</b>	<b>126</b>

**BESTELAKOAK**

&gt;16 urte &lt; 16 urte Guztira

	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Guztira
IA	3		3				3		3
IB	21		21	9	3	12	30	3	33
IC	7		7	2	7	9	9	7	16
IIA	7		7	5		5	12		12
IIB	7	1	8	1	2	3	8	3	11
III	5		5				5		5
IV									
V	6	2	8	2	1	3	8	3	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>56</b>	<b>3</b>	<b>59</b>	<b>19</b>	<b>13</b>	<b>32</b>	<b>75</b>	<b>16</b>	<b>91</b>

**II TAULA**

Anorexiak, bulimiak eta jateko ohituren bestelako nahasketak adin multzoka

Kopuru absolutuetan

Adina	Anorexia		Bulimia		Bestelakoak		Guztira	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa
<15	4	1	1	1	8	11	13	13
15-19	22	1	16		22	2	60	3
20-24	47	4	31	2	24	3	102	9
25-29	35	2	34	1	5		74	3
30-34	18	1	20	1	4		42	2
35-39	7	1	8	1	1		16	2
>40	6	2	10		11		27	2
<b>Guztira</b>	<b>139</b>	<b>12</b>	<b>120</b>	<b>6</b>	<b>75</b>	<b>16</b>	<b>334</b>	<b>34</b>

## Ehunekotan

Adina	Anorexia		Bulimia		Bestelakoak		Guztira	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizonezkoa
<15	2,9	8,3	0,8	16,7	10,7	68,8	3,9	38,2
15-19	15,8	8,3	13,3	0,0	29,3	12,5	18,0	8,8
20-24	33,8	33,3	25,8	33,3	32,0	18,8	30,5	26,5
25-29	25,2	16,7	28,3	16,7	6,7	0,0	22,2	8,8
30-34	12,9	8,3	16,7	16,7	5,3	0,0	12,6	5,9
35-39	5,0	8,3	6,7	16,7	1,3	0,0	4,8	5,9
>40	4,3	16,7	8,3	0,0	14,7	0,0	8,1	5,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

## III. TAULA

## Nafarroako Hospitaleko

## Dietetika eta Nutrizio Unitatea

Atenditutako jateko ohituren nahasketa kasuak (TCA),  
deribazioa eta pisu galeraren adierazleak

	1995	1996	1997	1998	1999
	29	53	49	66	110
Adimen Osasuneko Zentroetatik deribatutakoak	19	37	29	53	74
Nahasketa ponderal larriak	20	48	38	63	75
Nahasketaren indizea	15±10	17±9	16±10	17±8	17±11

• Ospitaleratzeen gutxieneko kopurua, betiere, Nafarroako Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatean (aipa bitez azken honen datuak).

Jarduketarako protokoloa:

• Dietetika Unitateak egindako iragazpen lana –kasua baloratu, familiari argibideak eman, Adimen Osasunera berbideratzea tratamenduaren ardura hartzeko sine quae non baldintza gisa.

• Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatean ingresa-tzeko erabakia hartzea Adimen Osasuneko zentroetako fakultatiboekin ados jarrita, batez ere arrazoi somatikoak direla eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **“Ikastetxe berrien eraikuntza eta egokitzapen obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –672/2000 ebazpenaz onetsita-koari– buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Ikastetxe berrien eraikuntza eta egokitzapen obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –672/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du aurrekontuko “Ikastetxe berrien eraikuntza eta egokitzapen obrak” izeneko 94001-7 lerroko aldatetegi buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Bi galderetan aipatzen diren aurrekontu aldatetegi egin dira ikastetxe publikoetan bukatzeaz dauden zenbait obrarako azken likidazioan gertatutako igoerei erantzuteko eta beste proiektu batzuei aurre egiteko, horrekin Departamentuaren beste konpromiso batzuk baztertuta utzi gabe. Zehazki, Mendillorriko eskola berriak eraikitze

obrez eta, batez ere, “Benjamín de Tudela” BHI-koez ari gara. Mendillorriko obren adjudikazioa, guztira, 494.684.365 pezetakoa izan da, alegia, aurrekontua 40.000.000 pezeta igo da, gaur arte eta obraren kontusailak zehaztu eta doitzeke daudenean. “Benjamín de Tudela” BHIan, berriz, obraren adjudikazioa, guztira, 219.649.565 pezetakoa izan da eta aurrekontua 14.144.770 pezeta igo da.

Bestalde, Azkoiengo BHIko obren exekuziorako proiektuaren enkarguak 12.000.000 pezetako inbertsioa ekarri du. Obra hori 2001/2002 ikasturtearen hasierarako aurkeztu behar da. Badira, bestalde, beharrezkoak eta oso presakoak diren beste obra batzuk, konponketak eta indarrean dagoen araudira egokitzapenak egiteari buruzkoak, adibidez, Aita Moret BHIan (10.000.000 pezeta), Beran egoitza birgaitzeko obrak (5.000.000 pezeta) edo Lekarozko BHIan fatxada konpondu eta NBE-CPI96ra egokitzekoak (eraikinetan sute-engandik babesteko baldintzak) (5.000.000 pezeta).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña

## **“Ikastetxe berrien eraikuntza eta LOGSEra egokitzeko obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –529 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Ikastetxe berrien eraikuntza eta LOGSEra egokitzeko obrak” izeneko 94001-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –529 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du aurrekontuko “Ikastetxe berrien eraikuntza eta egokitzapen obrak” izeneko 94001-7 lerroko aldaketei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Bi galderetan aipatzen diren aurrekontu aldaketak egin dira ikastetxe publikoetan bukatzeaz dauden zenbait obratako azken likidazioan gertatutako igoerei erantzuteko eta beste proiektu batzuei aurre egiteko, horrekin Departamentuaren beste konpromiso batzuk baztertuta utzi gabe. Zehazki, Mendillorriko eskola berriak eraikitze

obrez eta, batez ere, “Benjamín de Tudela” BHI-koez ari gara. Mendillorriko obren adjudikazioa, guztira, 494.684.365 pezetakoa izan da, alegia, aurrekontua 40.000.000 pezeta igo da, gaur arte eta obraren kontusailak zehaztu eta doitzeke daudenean. “Benjamín de Tudela” BHIan, berriz, obraren adjudikazioa, guztira, 219.649.565 pezetakoa izan da eta aurrekontua 14.144.770 pezeta igo da.

Bestalde, Azkoiengo BHIko obren exekuziorako proiektuaren enkarguak 12.000.000 pezetako inbertsioa ekarri du. Obra hori 2001/2002 ikasturtearen hasierarako aurkeztu behar da. Badira, bestalde, beharrezkoak eta oso presakoak diren beste obra batzuk, konponketak eta indarrean dagoen araudira egokitzapenak egiteari buruzkoak, adibidez, Aita Moret BHIan (10.000.000 pezeta), Beran egoitza birgaitzeko obrak (5.000.000 pezeta) edo Lekarozko BHIan fatxada konpondu eta NBE-CPI96ra egokitzekoak (eraikinetan sute-engandik babesteko baldintzak) (5.000.000 pezeta).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--